

EDITORIALA

Enbor beretik

Nazio Kontseiluak hartutako erabakiekin ELAk beste urrats bat eman berri du antolakuntza mailan. Duela urte batzuetako konpromisoari eutsiz eta berrikuntza prozesua era mailakatuan sustatzeko xedez, erakundea eraberritzen joan da bere egitura guztietan.

ELAren berreraketa garaian, legezketasun historikoan babesturik, belaunaldi oso baten konpromisoari esker, ELAren garapenean giltzarri bilakatu ziren zutabeak ezarri ziren. Proiektu eraginkor eta biziki erakargarria langileen artean eta gizarte osoan hedatzen joateko, gizon-emaume askoren ekarpena –norbanakoa eta kolektiboa– funtsezkoa izan zen garaian garaiko zailtasunak gainditzen joateko.

Urteotako ibilbide trinko honetan, proiektua hezurramitzen joan da, sendotzen; abertzale garen heinean nazio askapenerako ekarpenak burutzen eta klase ikuspegitik langile kontzientzia areagotzen. Gure izatearen berezkoak diren ezaugarri biak ardatz harturik erakundea gorpuzten eta handitzen joan gara.

Gizartean erroturik nahi duen proiektu orok militanteak behar ditu. Beraiek dira, elkar errekonozituaz, proiektu baten inguruko atxikimenduak hedatzen nahitaezko eragileak. Aurreko militanteen erakutsiak balio handia du gizartearen beharri-berrii militar berri eta gehiagorekin heltzeko. Baina militanteak ez dira nolnahi topatzen, ez dira kasualitate hutsez sortzen. Proiektua erakargarria izanik, begi aurreko lausoak astindu eta militanteak atzematen saiatu behar dugu. Saiakera horrek emaitza oparoak izango ditu zalantzarik gabe.

Orain kargua uztear dagoen German, beste askorekin batera, belaunaldi horren lekuko eta adierazle nabaria da. Bere militantzia ELAn bizi proiektuaren muinean kokatuz, abertzaletasuna eta klase mugimenduen hedapenari ekarpen garrantzizkoa eskaini dio ere. Hain eskasa eta preziatua den militantzia sustatzen bere ikasbide eta erakuspenak balio handia dute. Lasai egon daiteke: zuhaitz lerdaren enbor beretik sortuko dira besteak...

Adolfo Muñoz 'Txiki' nuevo secretario general-adjunto en sustitución de German Kortabarría

EL CONSEJO NACIONAL APRUEBA EL NUEVO COMITÉ EJECUTIVO

El Consejo Nacional de ELA se reunió el día 19 de junio en el Palacio Euskalduna de Bilbao con el fin de proceder, entre otras cuestiones del orden del día, a votar la propuesta de nueva composición del Comité Ejecutivo realizada por el Comité Nacional. El resultado de la votación arrojó un 88,8% a favor de la propuesta, por lo que la misma quedó aprobada.

Esta propuesta nace de la necesidad de cubrir la vacante de German Kortabarría en el Comité Ejecutivo al dejar éste su actual cargo por cumplimiento de la edad reglamentaria. Tal y como se detalla en la propuesta aprobada, Adolfo Muñoz "Txiki" sustituye a German en la Secretaría General Adjunta y Patxi Agirrezabala cubrirá el área de comunicación. Además se procede a algunos ajustes en las funciones de otras personas del Comité Ejecutivo.

RESOLUCIÓN DEL COMITÉ NACIONAL

Tras la reunión formal del Consejo Nacional, se procedió a informar a los medios de comunicación del resultado de la votación y a la presentación del nuevo Comité Ejecutivo, explicitando los detalles en cuanto a personas y funciones. Asimismo, German Kortabarría resumió ante la prensa el contenido de la Resolución del Comité Nacional "Trabajar el espacio social y político por la autodeterminación", aprobada el 11 de junio de 2007.



El nuevo comité ejecutivo con German Kortabarría.


do de la Resolución del Comité Nacional "Trabajar el espacio social y político por la autodeterminación", aprobada el 11 de junio de 2007.

A continuación, las personas componentes del Consejo Nacional, acompañadas de representantes de organi-

zaciones sociales y sindicales y de personas liberadas en ELA y ex liberadas, así como de algunos familiares, escucharon la intervención de German Kortabarría que, en nombre del Comité Nacional, pasó a destacar los elementos nucleares de la resolución aprobada por este órgano.

BATZORDE ERAGILE BERRIA

- Jose Elorrieta Aurrekoetxea - Idazkari nagusia
- Adolfo Muñoz Sanz - Idazkari nagusiaren albokoa
- Amaia Muñoz Capron-Manieux - Diruzaina
- Patxi Agirrezabala Mundiñano - Komunikazioa
- Alazne Alonso Izurza - Atalak
- Laura Gonzalez de Txabarri Etxaniz - Nazioarteko harremanak
- Txema Laiseka Biguri - Afiliazioa eta hauteskunde sindikalak
- Mitxel Lakuntza Vicario - Nafarroako koordinazioa
- Mikel Noval Fernandez - Gizarte politika
- Leire Txakartegi Iramategi - Prestakuntza eta zerbitzu juridikoak
- Eustakio Uranga Apeztegia - Antolakuntza
- Joseba Villarreal Olaizola - Negoziazio kolektiboa



Acabada la explicación, Adolfo Muñoz "Txiki, subrayó las claves de la situación política, social y sindical en la coyuntura actual, haciendo hincapié en la necesidad del trabajo sindical militante para ir ganando posiciones ante una coyuntura tan negativa en lo político y en lo social y sindical. Tuvo una mención especial para German Kortabarria, resaltando que es un lujo tener militantes de su carisma y generosidad compartiendo un mismo proyecto.

Jose Elorrieta, secretario general, glosó la figura de German Kortabarria en sus aspectos humanos y sindicales. Destacó la contribución militante que, desde un plano individual y colectivo, German ha aportado a ELA específicamente, y al movimiento sindical y al abertzalismo en general. Desde la cercanía, desde la proximidad que entraña German, destacó el reconocimiento del conjunto del sindicato hacia su persona. También tuvo un emotivo recuerdo para Itziar Alberdi, a punto de retirarse, leal y consecuente en toda su trayectoria militante sindical.

HAY QUE SEGUIR TRABAJANDO CON ILUSIÓN

En último lugar, German se dirigió a las personas allí presentes para recordar algunas vivencias suyas y de ELA en este período. Agradeció la confianza depositada en él y se dijo sabedor de haber tenido mucha suerte al conocer a tanta gente militante con la que compartir un proyecto social de esta envergadura.

Animó a la militancia a seguir trabajando con ilusión desde claves abertzales y en favor de las personas trabaja-



Itziar Alberdi también tuvo su merecido homenaje

doras. Hizo votos por seguir afianzando el euskera dentro de la organización y dibujó la necesidad del sindicalismo abertzale para mostrar una única estrategia desde el respeto a cada organización.

Tuvo un recuerdo especial para con algunas personas que han compartido el trabajo con él desde la cercanía y también para su otra familia, la de casa. Arrate, Aimar y Maialen también han contribuido junto con German al desarrollo de ELA. Mostró su confianza en ELA y en el futuro de la organización.

El acto acabó con una sentida ovación de despedida tras entonar Eusko Gudariak y La Internacional.

Nazio Kontseiluak ELA-ren Batzorde Eragileko osaketa berria onartu du

Kongresu arteko organo gorenaren %89k onartu zuen Batzorde Nazionalaren proposamena

Agur ekitaldian ilusioz lanean jarraitzeko beharra azpimarratu zuen German Kortabarriak

Etorkizunari begira baikor dela eta ELA esku onetan dagoela gaineratu zuen

"AUTODERMINAZIOAREN ALDEKO INDAR METAKETA BEHAR DUGU"

Autodeterminazioaren aldeko esparru sozial eta politikoa landu" izenburua darama Nazio Batzordeak duela gutxi onartu duen ebazpena. Dokumentu honetan Nazio Batzordeak bildu egin nahi du ELAk azken aldion gure herriaren errealitatearen hainbat alderdiri buruz egin duen gogoeta.

Honen bidez Nazio Batzordeak ELAko arduradun eta militanteentzat hausnartzerakoan eta posizioa finkatzerakoan lagungarri izan nahi du, eta eztabaida politiko zein sozialerako ekarpena ere egin nahi du.

Bistan denez, gogoeta hau sindikatu baten ikuspuntutik eginda dago, eta horrenbestez, langile-klasearen enplegu eta bizi-baldintzak funtsezko jotzen dituen erakunde baten ikuspuntutik; halaber, ELA erakunde abertzale bat ere bada, euskal gatazka politikolari irtenbide demokratikoa emateko eta gure herria-

ren garapen nazionalerikiko konpromisoa hartu duena. Sindikatuak interes berezia du bakea eta normal-kuntza politikoa ekarriko dituen prozesu bat ongi amai dadin.

Hauxe bera da, sarrera gisa, ebazpenaren hasera. Bertan ondo finkatzen dira, era laburrean, zeintzuk diren Nazio Batzordeak agiriaren bitartez lortu nahi dituen helburuak. Batetik, ELAko militanteak etengabeko hausnarketa eta eztabaidarako tresna baliagarria dute euren eskuetan, bertatik abiatuz bidea sakontzen joateko.

Bestetik, eta edukiei begira, ELArentzat abagunearen azterketa burutzeko garaian banaezinak eta ezinbestekoak diren bi atal jorratzen dira: lehenengoz lan eta gizarte errealitatea; eta auzi nazionala bigarrenez. Bietan ere gordintasun eta gardentasun osoz, ELAren ikuspegia eta iritzia plazaratzen dira, urteotako espe-

rientzian oinarritutako ikuspegia eta iritzia, hain zuzen. Beraz, egunerokotasunaren haritik, ELAk eginko ibilbide baten isla da dokumentu hau. Ibilbidearen ostean ateratako ondorioak ere ez dira nolana hikoak. Badugu zer egin eta zertan konprometitu.


Dokumentua www.ela-sindikatu.org helbidean

La resolución "Trabajar el espacio social y político por la autodeterminación" destaca la necesidad de la acumulación de fuerzas soberanistas

GERMAN KORTABARRIAREN AGURRA

BIZITZA OSO BAT ELA-RENTZAT LANEAN

Ekainaren 19an Euskalduna Jauregian egin zen Nazio Kontseiluan German Kortabarria Igartuak agur esan zion sindikatu honen Batzorde Eragileko kide izateari, adin arrazoiak direla eta. Germanek 40 urte eman ditu lanean ELAn. Bizitza oso bat langilen aldeko borrokan.



GERMAN KORTABARRIARI

Mundua, gizartea,
Desorekatzeko zorian da beti;

Desorekatzen denean
(lurrera datorren
muru bat bezala)
Ahula harrapatzen du azpian.

Ahula, gure munduan, gure
gizartean,
galdua dago edo erdi galdua.
Esaera zaharrak ere hala dio: Ahulak ahulgarria
du



berarekin
Gaztelaniaz ere: Al perro flaco todo son pulgas

Zaila da hari (ahulari) babesa ematea

Zailtasun horren aurka
Leiatu zara zu etengabe;
Ez egun bakarreko bihotz berotasunaz,
Okilaren egoskortasunaz baizik:
Mokoka eta joka beti egur zailari.

Zorionak! Urte askoan!

2007
Ekaina
Bernardo Atxaga



"ASKO IKASI DUGU GERMANEKIN"

Adolfo Muñoz 'Txiki' - Idazkari nagusiaren albokoa

German duela 30 urte ezagutu nuen, baina azaletik. Euban ez nion asko erreparatu; oso gaztea nintzen. Gero, bai. Gasteizera joaten zen, Simca 900 batean, uste dut, gai juridikoak lantzerantz. Garai hartako oroitzapen oso onak ditut. Irrikaz jorratzen genituen gaiak, gogoeta politiko eta sindikala nola egin erabakitzeko.

Harreman gehien azken 4 urteotan izan dugu, Barrainkuan hasi nintzenetik. Zer esan nezake Germani buruz? Berarekin asko ikasten dela, interes apur bat izanez gero. Hausnartzera behartzen zaituen akuilua izaten da. Gaiak ongi aztertzerantz eta pentsatzerantz behartzen du jendea. Eta pentsatutakoa ez da jabego pribatua, gizarte-proiektu jakin baten mesedetan jartzen da, ELAren proiektuaren baitan... Jakintza hori ez da bere buruari begira geratzen; alderantziz, inguruan bizitzen denarekin erlazio estua du. Germanentzat, eta guretzat, pentsatzea konpromisoa hartzea da. Germanen ustez, nork bere burua aberastea jarrera baten ondorio da. Hausnartzea, gogoeta egitea beharrezkoa da ideia bat eta burutapen bat bereizteko.

Germanek badaki entzuten. Agian zerbait esan eta uste duzu ez dela jabetu, baina ez da horrela. Solaskideekin izaten dituen eztabaidei zukua ateratzen die; mamia bereganatzen du, eta kezkatzen zaituena hobetzeko ideiak eskaintzen dizkizu. Ideiak eskaintzen ditu. Oso une onak pasa ditut berarekin. Barre egin dugu sarri. Eta eskertzekoa da lanean umorea ez galtzea eta barre egiteko aukera izatea. Nik hala ezagutu dut, eta aitortzea zor zaio.



"HAN SIDO 40 AÑOS DE MILITANCIA"

Jose Elorrieta - Secretario General

Despedimos a un maestro que ha sabido expresar, en cada momento, el punto de vista de ELA con precisión, profundidad y creo que también con brillantez.

German formó parte desde el principio de un grupo de hombres y mujeres decidido a que el sindicalismo abertzale, además de tener historia, tuviese futuro. Fue un compromiso, de vida, de militancia, que durante casi 40 años de manera ininterrumpida e intensa ha llegado hasta hoy.

En esta historia, en este quehacer de ELA, German es una referencia obligada no solamente valorada desde ELA, sino también desde aquellos sectores sindicales, sociales, políticos, culturales..., que han tenido la ocasión de relacionarse con un gran dirigente sindical con valores, con una enorme sensibilidad y personalidad. Su humor es rápido, que provoca dosis simultáneas de sonrisa y reflexión. Quienes hemos tenido la suerte de trabajar con él, de ser sus amigos, sabemos lo mucho que vale, y por supuesto le apreciamos y le queremos.

Este reconocimiento y agradecimiento a German quiero extenderlo asimismo a su mujer Arrate y a sus hijos Aimar y Maialen, no sólo porque les hemos robado mucho tiempo, y tranquilidad, sino porque han sido parte de su compromiso activo, militante.

GIPUZKOAKO ERAIKUNTZAKO LAN HITZARMENA SINATU DA



ELAK eta Adegik Gipuzkoako eraikuntzako lan hitzarmena sinatu zuten ekainaren 15ean. ELAK gehiengo osoa du sektore honetan eta hitzarmenak 12.000 langileengan izango du eragina.

Sinatu den akordioak, besteak beste, datozen hiru urteetarako KPI+%1,6ko soldata igoera eta 8 ordutako lanaldiaren murrizketa jasotzen ditu. Bestalde, Geroa pensio fondoaren hobekuntza, dieten %6,8ko igoera eta erresidentzia paperak lortu ditzaten atzerriko langileentzat egun bateko lizentzia jasotzen ditu.

ELAren esanetan akordioa posible izan da sindikatu honek erakutsi duen indarragatik eta grebarako kemenagatik, nahiz eta ugazabek aurretik jakin hitzarmen honekin mahai gainean zeuden soldaten eta lanaldiaren inguruko eskaintzak nabarmenki hobetu beharra izango zutela.

ELAren iritziz, Gipuzkoako eraikuntzaren alorrean lortutako akordioa soilik uler daiteke sindikatu honek konfrontazioarako erakutsi duen grina kontutan hartzen den heinean, izan ere, borroka ezinbesteko tresna bihurtu da sindikatu honentzat.

Iritzia Opinión

37 DÍAS Y UNA CONVOCATORIA DE HUELGA

37 días en huelga son muchos días. Es el tiempo que estuvimos los trabajadores y trabajadoras de la construcción de Gipuzkoa para conseguir un convenio digno en el año 2003. 37 días, en el que el trabajo conjunto, liderado por ELA y LAB, posibilitó un convenio con contenidos en salarios, jornada y apartados sociales que han recibido durante estos años una valoración muy alta por parte de los trabajadores y trabajadoras del sector.

En esa dirección planteamos, en el mes enero, a todos los sindicatos de la mesa, pero especialmente a LAB, la necesidad de establecer un trabajo en común. Nuestra exigencia era mínima y elemental: que para la firma de acuerdos se respetara la mayoría de la representación sindical que los trabajadores y trabajadoras establecieron en la elecciones sindicales. La respuesta del resto de sindicatos fue negativa, rechazaban el trabajo unitario presentado por ELA. Las negociaciones se inician en febrero y durante meses, las ofertas realizadas por ADEGI son insuficientes y regresivas, y la falta de avances en la negociación produce evidentes síntomas de estancamiento en la negociación.

En ese contexto ELA, propone al resto de sindicatos, la necesidad de iniciar movilizaciones que, en el supuesto de ser no ser atendidas por la patronal, deberían culminar con la convocatoria de una huelga de carácter indefinido, cuyo inicio situamos antes de las elecciones municipales y forales de mayo. Una vez más, todos los sindicatos rechazan nuestra propuesta.

Es en estas condiciones cuando ELA decide convocar una huelga indefinida en solitario. Lo hace desde la imposibilidad de sumar voluntades a la lucha, desde la responsabilidad de ostentar la mayoría en la mesa de negociación y desde la voluntad de alcanzar un acuerdo similar al de 2003. La reacción del resto de sindicatos fue decepcionante.

No obstante, el ingente trabajo de los delegados y delegadas de ELA consigue en esas circunstancias que una mayoría significativa del sector, tajo tras tajo y asamblea tras asamblea, apoyen la convocatoria de huelga realizada por ELA. La única convocatoria con credibilidad, la que situaba al sector ante un escenario de convulsión e incertidumbre.

Esta es la clave por la que ADEGI, en vísperas del inicio de la huelga, buscase un acuerdo, con el convocante de la huelga, para evitarla, a sabiendas de que los contenidos de ese acuerdo no se limitarían a una mera actualización salarial y debían superar ampliamente la oferta económica insuficiente realizada en la mesa de negociación.

Pero asimismo los puntos del acuerdo superan, (lo conocemos porque en diversas reuniones lo han confesado), las expectativas de sindicatos que ahora no firman y exteriorizan que "es un convenio con contenidos insuficientes".

El convenio de la construcción de Gipuzkoa es un convenio logrado en solitario por la gente de ELA, gente que comprende que la negociación colectiva es una confrontación de intereses y que para conseguir buenos convenios, como este, hay que luchar, porque merece la pena.

Xabier Agirretxe, responsable de la construcción en Gipuzkoa

L abur Breves

● Greba Bizkaiko garbikuntzan

Ekainaren 18a greba eguna izan zen Bizkaiko eraikuntzen garbitasuneko langileentzako. Greba egunaren helburua sektore honetan lan hitzarmen duin bat lortzea izan zen. ELA-Zerbitzuak federazioko idazkari nagusi Unai Martinezek azpimarratu zuenez "greba eguna oso positiboa izan zen. Beste behin agerian gelditu da sektoreko langileak borrokatzeko prest daudela. Gainera beste gauza bat ere aipatu nahiko nuke: deialdia guk bakarrik egin arren beste sindikatuetakoa afiliatu askok bat egin dute gure deialdiarekin". Grebak batez ere udaletan, aireportuan eta diputazioko langileen artean izan zuen eragina.



www.ela-sindikatua.org

ELA **a**stekaria

Barrainkua 13, Bilbao

Tel. 94 403 77 00

Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207